

## Arrazoia

tzeptuekin nahastu behar. Hori kontuan edukiz, giza arrazen artean arraza batzuren nagusitasun adimenezkoa nahiz moralala defendatzen duen doktrina da arrazismoa. Arraza batzuk beste arrazekiko ezartzen duten era guztietako nagusitasunean eta zapalketan nabarmentzen dira doktrina horren ondorioak; horrela, adibidez, kolonialismoa, arrazagatiko diskriminazioa, genozidioa, eta abar.

Azkeneko bi mende hauetako teoria honen defendatzaile ezagunenetakoa batzu, hauek dira: Gobineau, 1853an idatzitako bere Essai sur l'inégalité des races humaines lanarekin; Houston Stewart Chamberlain, 1899ko bere XIX. mendearen oinarriak obrarekin; Adolf Hitler bere Mein Kampf delakoarekin. Gaur arrazismoa zientziako oinarriak gabe aurkitzen da, ezin bait da arraza batzuren berezko nagusitasuna frogatu eta, bestalde, arraza garbien errealtatea bera oso eskuragaitza bait da.

## Arrazoia

1. Hizkera arruntean "arrazoia eduki" esan ohi da norbait egibidean edo zuzen dabilela adierazteko. Zerbait arrazoizkoa dela esaten da, zentzuzkoa dela adierazteko.

2. Matematikan erabiltzen da "arrazoia" hitza, magnitude bi edo gehiagoren arteko erlazioa adierazteko.

3. Filosofian, berriz, arrazoiak esangura objektiboa du, \*arrazoimenak subjektiboa duen bitartean. Bi adiera nagusi ditu:

a) Giza gogamenduaren \*arau eta \*munduaren adigarritasunaren oinarri absolutua da. Sarritan pertsonifikatu egin izan da edota Jainkoarekin berdindu ere bai. Testamentu Zaharrean "Jakinduria" hitzak honelako esanahia du; Frantziako Konbentzioak Arrazoiaren kultura eraiki zuen.

b) Jokabideren bat edo gertaeraren bat esplikatze edota zurrizteko oinarria, zergatia edo zioa da.

Ik. Arrazoimena.

## Arrazoi(aren) izakia

Erreala ez izanik, giza ezagutzaren objektu hutsa dena da; hala ere, \*errealtatean oin hartzen dute, adibidez, ezetapenak, gabetasunak eta \*logikan \*generoen tanterako beste fikzioek.

## Arrazoiketa

Ik. Arrazonamendua.

## Arrazoimena

Orokorki harturik, \*argumentuak lantzeko eta \*kontzeptuak eta \*proposizioak elkarre-

kin lotzeko ahalmena da arrazoimena. Giza ahalmena da, \*gizakia bestelako \*izakietatik bereizten duena. Horregatik animal rationale izendatu izan da gizakia. Ia guztiek onartutzat daukate gizakiaren azpiko animaliek, goimailakoek ere, ez daukatela arrazoimenik, nolabaiteko \*adimena, edo abstrakzio-ahalmena, nabari badute ere.

Horregatik, arrazoimenaren kontraktotzat hartzen dira \*hunkimena eta sentimena, \*errealtatea atzemateko traba bezala; gizaki arrazoimendunaren endakapentzat ikusten da, berriz, zoratasunez eta grina hutsez jokatzeari, arrazoiketarik eza edo logikarik gabeko arrazoiketa azaltzen duelako.

Izan ere, arrazoimena eta logika batera doaz; grekozko logos hitzaren itzulpena da arrazoimena, eta honen ihardueraren \*arauak \*logikak ematen ditu.

San Tomas Aquino-koarentzat arrazoimena, giza \*ezagutza eta animaliena ezezik, izpiritu hutsena (\*Jainkoarena eta aingeruarena) eta gizakiarena ere bereizten ditu. Izan ere, izpiritu hutsen ezagutza zuzenekoa da, eta adimenaren (intellectus-aren) bidez gertatzen da; gizakiarena, berriz, sentsuen bitartez eta arrazoiketaren arrazoiketaz lortzen da: iharduera hau arrazoimenak (ratio-k) egiten du.

Filosofia moderno askorentzat arrazoimena ez da \*esperientzia lantzeko ahalmena bakarrik --batzutan elkarren kontraktotzat ere hartzen dira--. Esperientziaren aurretiko printzipio-sistema bezala ulertzen da, logikaren arabera formulatzeko modukoa. Alemanez Vernunft izendatu da, eta badu San Tomas Aquino-Koaren intellectus-arekin kidesasunik. Orduan \*adimenak beste egitekoa hartzen du: hau da, sentsuen bidez jasotako datuak taxutzearena.

Arrazoimenezko eta \*mitozko ezagutzak elkarren kontra jarri izan dira. G. Gurdorf-ek dio: "La Philosophie occidentale est née en Grèce, avec le passage du mythos au logos, c'est-à-dire avec les tentatives d'interprétation discursive et rationnelle" (Les Sciences humaines et la pensée occidentale, Payot, 1966, I, 128. or.). Honela, badirudi \*filosofia bera eta arrazoimenaren historia berdindu egiten direla. \*Razionalismoak mitozkoaren kritika gogorra egin du eta honelako \*ezagutza ukatu, primitibotzat eta ez-kritikotzat hartuz.

Arrazoimenezko ezagutza fedezko ezagutzari buruz, berriz, ezagutza natural bezala defini daiteke, errebelazio bidezko ezagutzari kontrajarritz. Bi ezagutza moduon harremanak eztabaida asko sortu ditu: alde batetik, errebelazio bidezko ezagutza arrazoimenaren kontraktotzat edota ezinezkotzat

jo izan da; alderantziz, errebelazioa arrazoimenaren koroa bezala eta hortikako ezagutza goreneko ezagutza bezala ulertu izan da. Teologia fedezko egiaren gogarte eta sistematikotze razional bezala definitzen da.

Paulo Agirrebaltzategi

Ik. Arrazoa; Adimena; Entelegua; Izpiritua; Gogoa.

### Arrazonamendua

Sin.: Arrazoiketa.

"Arrazonamendu" hitza bi zentzutan uler daiteke: psikologikoan eta logikoan. Ikuspuntu psikologikotik begiratuta, pentsatzearen teorian aztertzen da, arazo nagusiak honako hauek direlarik: \*prozesu intelektuallak irudiek lagundurik doazenentz, arrazonamendua "barne-iharduketa" ala "konportarazkoa" ote denentz, etab. Logikaren ikuspuntutik begiratuta, prozesu formala dugu arrazonamendua. Izan ere, "arrazonamendu" terminoa era guztietako prozesu formalei aplikatzen zaie eta, beraz, eragiketa \*deduktiboak nahiz \*induktiboak eman ditzake aditzera. Esan behar da, bestalde, prozesu formal zuzenak nahiz okerrak ere arrazonamendutzat jotzen direla; honela, bada, aparalogismoaz zein \*sofismaz ari garenean, horiek arrazonamendutzat ere har ditzakegu. Askotan, bestetik, "arrazonamendu" kontzeptua \*"argumentu" terminoa erabiltzen den modu berean ulertzen da eta, zentzu honetan, arrazonamendu formalaz eta ez-formalaz hitz egin daiteke, argumentu formalaz eta ez-formalaz egiten den bezalaxe.

Ik. Argumentua; Pentsamendua.

### Ars combinatoria

Arte konbinatzailea.

Oinarritzat \*kontzeptu banaka eta erlatiboki sinpleak hartu eta horien bidez kontzeptu konplexuak asmatzeko teknika da, Leibniz-ek 1966an proposatua.

### Ars magna Raymundi

Erraimun Llull-en arte handia.

Zenbait \*printzipiotatik abiaturik, harko \*ondorioetara heltzeko, Llull-ek proposatzen zuen metodoa.

### Arzsilao Pitane-koa

K.a. 315-241 urte inguruan bizi izandakoa. Lehenik Teofrasto-ren ikasle izana, eta gero Polemon, Krate eta Kranter-ena. Platon-en Akademiara irakasle, Akademia ertaina deituaren eta garai hartako \*eszeptizismo moderatuaren errepresentatzailearik nagusie-

netakoa. Dirudienez, Pirron-engan ezezik, Platon-engan ere aurkitu zituen Arzsilao-k eszeptizismorako arrazoiak.

### Askatasuna

Sin.: Libertatea

Etimologiaren arabera, askatua da esklabutzapean edo presondegian ez dagoena. Bere \*nahiaren eta jitearen arabera artzen ahal da, kanpoko edo barneko bortxarik gabe. Hiru askatasun-mota bereiz daitezke: nahiaren barne-askatasuna, \*ekintzaren kanpo-askatasuna eta gizarte-askatasunak.

1. Barne-askatasunak ematen dio \*gizakiari bereber erabakitzeke ahalmena, kanpoko ala barneko indar zentzu gabekoen menpean izan gabe. Hona zenbait adibide:

a) Zuhurtziaren askatasun moralak baztertzen ditu grinena, \*hunkipenen eta azturen oldar zentzu gabekoak, eta ekintzak oharman osoan atxekitzen ditu, giza naturaren osoki betetzeko, \*ongia obratzeko deiari ihardesteko. \*Kontzientziak nahia argitzen du senei nagusi dadin, erantzukizun moralaren sortezteko.

b) Indiferentzi askatasunak funtsik gabeko erabakiak hartzen ditu, \*arrazoirik gabe ari nahiz. Descartes-ek Jainkoaren gain ezartzen zuen askatasun osoa, adimen-ordenaren sortzaile delakoan. Bestela, bi motibazio berdinetarik baten hautatzeko ahalmena da, Buridan-en astoa zalantzan zen bezala, bi zaldare gaitzururen artean.

c) Hautatzeko askatasuna da bi ekintzetarik baten aukeratzeko ahalmena, \*determinismo guztiak baztertuz eta bere nahiari bakarrik jarraikiz. Montaigne-k: "Egiazko askatasuna da bere baitarik nahi den guztia-ren egitea".

2. Kanpo-askatasuna artzeko ahalmena da kapotikako bortxan menpean izan gabe, bere nahi motibatuari eta natur legeari jarraikiz. Mota desberdin asko daude:

a) Askatasun fisikoa higitzeko ahala da.

b) Askatasun psikologikoa da bere joerei jarraikiz ari denaren oldea, bere ahaltsunak goratuz, natur eta gizarte-inguruneak eragotzi gabe. Blondel-ek: "Askatasuna determinismotik jalgitzen da, eta determinismoa askatasunaren bidea da".

c) Askatasun moralak: Spinoza-k ez du onartzen "aukeramena" (*liberum arbitrium*), eta determinismorik garratzena atxekitzen du. Gizona ez da aske sortzen, baina askatasunera heldu behar du, \*senen uztarpetik jalgiz. Gaiztakinak ere badauka behereko